

## IRAKURMENA

**Ekintza komunikatiboa:** Jakin-mina asetzeko asmoz, ipuin erraz bateko erreferentzia nagusiak identifikatzea: gaia, tokia, pertsonaiak, animaliak eta gauzak.

### Ardiak eta belarra

Behin, artzain batek larrera atera zuen artaldea, oso belar ona zegoen toki batera, eta ardiei esan zien:

—Larre ona daukazue gaur, eta nahikoa jandakoan, etorri etxera.

Iluntzean etorri ziren ardiak etxera, eta nagusiak galdetu zien:

—Nahikoa jan al duzue?

—Batere ez dugu jan —erantzun zioten ardiek.

—Zergatik, bada?

—Jaten hasten ginenean, “aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago”, esaten zigun belarrak, etaaaa... egun guztian ibili eta ibili, ez dugu ezertxo ere jan.

—Ez zarete tonto txarrak —esan zien artzainak—, hurrena hori esaten dizuenean, “bertan goxo” esan, eta bertan geldi zaitezte, nahikoa jan arte.

Hurrengo egunean, joan ziren berriz ere ardiak larretoki on hartara, eta belarra hasi zitzaaien esanez:

—Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago...

Baina, oraingoan, ardiek erantzuten zuten:

—Bertan goxo, bertan goxo...

Iluntze hartan nahikoa janda itzuli ziren etxera.

Garai hartan, gauza guztiek zekiten hizketan: belarrak, sasiak, arbolek eta animaliek ere bai. Bakar-bakarrik goroldioak ez omen zekien. Beste gauza guztiak elkartu ziren goroldioari hizketan erakusteko asmoz, eta, eztabaidatzen hasi zirenean goroldioari nola erakutsiko, denak mutututa geratu omen ziren. Horregatik ez omen dute gehiago hizketan egiten gauza horiek denek.

Batzuek esaten dute ardiek eta belarrak, oraindik ere, hitz egiten dutela elkarrekin. Ardiak larrera ateratzen direnean, belarrak esaten omen die:

—Aurrera eta goxoago, aurrera eta goxoago...

Ardiak ibiltzen dira, pixka batean, batetik bestera, eta, azkenean, *beeee-beeee!* eginez, bertan gelditzen dira.

*Beee-beee...* horrek... “bertan goxo, bertan goxo”, esan nahi omen du.

Arratibel, Joxe

“Kontu zaharrak” (1995, Erein)

Ardiak eta belarra (189-191or.)

(Moldatua)